

NOLA ERABILI

Menderakuntza bidezko perpausak -VI- moduzkoak

Esku artean daukazun bideoan bost atal nagusi bereiz daitezke.

-n bezala 03:29

-n bezalakoa -na bezalakoa

-n moduan/-n modura

-tako moduan -(r)iko moduan -t(z)eko moduan

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, gida honetako lehen bi atalei dagokien orrialdeak ikasleei banatu eta bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean ikusi.

-ATAL DRAMATIKO LUZEA: PROGRAMA.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta jarritz.

Hori eginda, bideoa ikusiko dugu.

Bideoa ikusi eta gero, jarraian datozen galderak luzatu ikasleei, gidoi idatzia aurrean dutela.

-Nola aritu da Olatz?

-Nola ireki du programa Olatzek?

-Nolakoa da Olatzek daukan programa?

-Nolakoa da Olatzek mahai gainean daukan kalkulagailua?

-Nolako kalkulagailua erosi zuen Loreak?

-Mikelek lan egiten al du larunbatean?

-Nola egiten du lan Mikelek?

-Nola utziko du Mikelek Olatzen irudia?

-Egindako lana, nola gordeko du Olatzek?

-nez 12:13

-nez (kausa) -nez(modua)
nik dakidanez nik dakidala

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, gida honetako lehen bi atalei dagozkien orrialdeak ikasleei banatu eta bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean ikusi.

-n antzera 14:27

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, gida honetako lehen bi atalei dagozkien orrialdeak ikasleei banatu eta bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean ikusi.

-n neurrian ba-... bezala 17:30
(erdarazko gerundioa)

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, gida honetako lehen bi atalei dagozkien orrialdeak ikasleei banatu eta bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean ikusi.

-ATAL DRAMATIKO LUZEA: GALIPOTARENA.

-Gidoia irakurri letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

Hori eginda, bideoa ikusiko dugu. Oraingoan galderak ikasleek bilatuko dizkiete gidoian letra lodia barnean duten perpausei

Adibidez: Gidoian-Astoak bagina bezala (*aritu gara*).
Ikasleek -Nola aritu zarete?

EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

9. kapitulua

Menderakuntza bidezko perpausak -VI-

moduzkoak

Moduzko perpausak, izenak berak aditzera ematen duen bezala, modua edo era adierazten dute; hau da, perpaus nagusiak adierazten duen ekintza nola edo zein modutan burutzen den. Beraz, nola? edo zelan? galderei erantzuten diete.

-n bezala

Pantailan agertu dena da moduzko perpausak egiteko egiturarik erabiliena. Formari dagokionez, aditz laguntzaileari *-n* menderagailua erantsiz eta, ondoren, *bezala* modu-aditzondoa gehituz lortzen da.

Zuk esan bezala egin dut.

Nik HONELA egin dut. Zuk HONELA esan duzu.

Nik (Zuk HONELA esan duzu) egin dut.

Nik (Zuk esan duzu) egin dut.

*Nik (Zuk esan duzu) **n bezala** egin dut.*

*Nik (Zuk esan duzu) **n bezala** egin dut.*

*Nik zuk esan duzun **bezala** egin dut.*

*Zuk esan duzun **bezala** egin dut.*

Zuk esan bezala egin dut.

Zuk esan bezala egin dut.

-n bezalakoa

Izenlagun gisa erabiltzen denean, -KO atzizkia eranstean zaio.

Autoa Mikelek esan duen bezala dago.

Olatzek nola? galderari erantzun dio. Mikelek esan dio autoa gaizki aparkatuta dagoela, eta halaxe da. Autoa gaizki aparkatuta dago.

Autoa Mikelek esan duen bezalakoa da.

Loreak, ordea, nolakoa? Galderari erantzun dio. Mikelek esan dio autoa gorria eta ederra dela, eta halaxe da. Autoa gorria eta ederra da.

-na bezalakoa

Lehenago ikusi dugun egituraren antzekoa dela ematen du beste honek, baina, kontuz, ez dira baliokideak.

-n bezalakoa # -na bezalakoa

Autoa Mikelek esan duen bezalakoa da.

Loreak nolakoa? galderari erantzun dio. Autoa gorria eta ederra da, Mikelek esan duen bezala.

Autoa Mikelek esan duena bezalakoa da.

Olatzek, ordea, nolakoa? galderari erantzun dion arren, beste auto bat ere aipatu du, horregatik erabili du erlatiboa. Autoa Mikelek esan duen autoa bezalakoa da. Antza denez, Mikelek auto hori beste auto batekin alderatu du. Ikus dezagun esandako adibide batzuen bitartez.

PROGRAMA

Olatz telefonoz

- OLATZ.-** Mikel, ezin dut artxiboa ireki.
MIKEL.- ...
OLATZ.- Bai, bai zuk **esan bezala** aritu naiz, baina alferrik.
MIKEL.- ...
OLATZ.- Baietz, programa ireki dut lehenengo, zuk **esan didazun moduan**. Gero bilatzeari ekin diot eta aurkitu dut. Sakatu diot artxiboari, behin eta berriro sakatu ere, baina ez da irekitzen. Mesedez, zatoz hona!

Olatzek telefonoa eskegitzen du. Mikel iristen da.

- MIKEL.-** Aupa, Olatz, arazoak?
OLATZ.- Bai. Ea zuk konpontzen duzun. Ni kokoteraino nago.
MIKEL.- Harrituta nago, izan ere programa hau **nirea bezalakoa** da eta niri ez dit inoiz hutsik egin. Programa berriro instalatuko dizut, ongi?
OLATZ.- Nahi **duzun moduan** egin, baina konpondu. Lan pila bat daukat atzeratuta.
MIKEL.- Lasai, neska, konponduko dut eta.

Mikelek mahai gainean kalkulagailu bat ikusten du.

- MIKEL.-** Hara! Kalkulagailu berria.
OLATZ.- Herenegun erosi nuen.
MIKEL.- Ez al da ferian ikusi **genuena bezalakoa**?
OLATZ.- Badakit zein kalkulagailu esaten duzun. Ez da hura **bezalakoa, antzekoa** bai, ordea. Ikusi **genuenaren modukoa** da, baina txikiagoa. Loreak erosi du **feriakoa bezalakoa**.
MIKEL.- Lorea, **ekonomialari gehienak bezala**, beti izan da neska ordenatua.

Olatzek kalkulagailua eskuetatik kentzen dio.

- OLATZ.-** Utzi kalkulagailua mahai gainean eta konpondu ordenagailua. Nik, **zuk ez bezala**, larunbatean ere lan egin behar dut.

- MIKEL.-** Lasai, lasai. Azkar eta ongi usoak hegan. Ba al zenekien, Olatz? Azkar eta ongi usoak hegan. **Nork bere moduan** egiten du lan. Nik, esaterako, honela egiten dut, **saiak bezala**, lasai-lasai. Han, badator, badator, **agindu bezala** dator. Hori al zegoen, ireki nahi zenuen artxiboan?
- OLATZ.-** Bai, hori da.
- MIKEL.-** Eta nor da ume hori, jakin badaiteke?
- OLATZ.-** Ume hori neu naiz, eta kontuz zer esaten duzun. Ez nago txantxetarako eta.
- MIKEL.-** Zu? Horrelakoa al zinen txikitan?
- OLATZ.-** Bai, horrelakoa nintzen.
- MIKEL.-** Beno, beno, irudia **dagoen bezala** utziko dut. Gero egindako lana gordetzeko badakizu nola egin behar duzun, ezta?
- OLATZ.-** Zuk esan **zenidan bezala** egingo dut, eta arazorik badaukat, berriro deituko dizut.
- MIKEL.-** Ongi da, Mikelman, beti prest behartsuari laguntzeko. Adio.

Baietz, Mikel, programa ireki dut lehenengo, zuk **esan didazun moduan**.

Baietz, Mikel, programa ireki dut lehenengo, zuk **esan didazun bezala**.

Baietz, Mikel, programa ireki dut lehenengo, zuk **esan didazun eran**.

Baietz, Mikel, programa ireki dut lehenengo, zuk **esan didazun gisan**.

Baietz, Mikel, programa ireki dut lehenengo, zuk **esan didazun legez**.

Entzun dituzuen moduzko egitura horiek denak baliokideak dira. Ondoren entzungo dituzuenak ere bai.

Ez al da ferian ikusi genuena bezalakoa?

Ez al da ferian ikusi genuenaren gisakoa?

Ez al da ferian ikusi genuenaren modukoa?

Ez al da ferian ikusi genuenaren erakoa?

Euskaraz desberdintasuna adierazteko, berdintasuna adierazteko erabiltzen dugun egitura bera erabiltzen da, aurretik ez partikula jarritz.

Nik, zuk ez bezala, larunbatean ere lan egin behar dut.

Pagoak, pinuak ez bezala, hosto erorkorrak dauzka.

Gauez, egunez ez bezala, marti ikusten da.

-n moduan -n modura

Zenbaitetan, *moduan* formaren ordez, *modura* aldaera erabiltzen da.

Irakasleak esan dit nahi dud§an moduan egiteko.

Irakasleak esan dit nahi dud§an modura egiteko.

-tako moduan -(r)iko moduan

Bestalde, aditz jokatugabeekin ere erabil daiteke aditz-partizipioari *-tako edo -(r)iko* atzizkiak erantsiz.

Irakasleak esandako moduan egiten badut, hobe.

-t(z)eko moduan

Aditz-izenari *-t(z)eko moduan* gehituz gero, moduzko perpausak eratzeko moduko egitura izango dugu.

LOREA.-	Kaixo, Olatz.
OLATZ.-	Kaixo, Lorea, ekarri al duzu?
LOREA.-	Hona hemen ogitartekoa. Ea zer iruditzen zaizun.
OLATZ.-	Oso itxura ona dauka. Edonori jateko gogoa pizteko modukoa.
LOREA.-	Hori da, bada, behar duguna. Gosea piztea, ea ogitarteko morderoa saltzen dugun.
OLATZ.-	Denak hau bezalakoak egiten badituzu, ziur izan barra-barra salduko ditugula.
LOREA.-	Benetan uste al duzu saltzeko modukoa dela?
OLATZ.-	Jakina, neska! Ez izan zalantzarik. Egundoko negozioa egiteko moduan gaude eta. Alaitu aurpegi hori!

Aditz laguntzaileari edo trinkoari *-nez* atzizkia erantsiz ere lor ditzakegu moduzko perpausak.

-nez

MIKEL.-	Berriak dioenez , datorren astelehenean onartuko dute lege berria.
OLATZ.-	Datorren astean? Azkar ibili dira oraingoan... Egia esatea nahi baduzu, niri dagokidanez , ez dago arazorik.
MIKEL.-	Paper guztiak prest dauzkazu, ala? Artikulu honetan esaten denez , astebeteko epea izango da aurkezteko.
OLATZ.-	Den-denak dauzkat prest.

Egitura hori zenbait esapide eginetan ere aurki daiteke.

MIKEL.-	Dirudienez, fin ibili zara egitekoak egiten.
OLATZ.-	Bistan denez, ez zara nitaz fio.
MIKEL.-	Nik dakidanez, ez dizut inoiz huts egin.
OLATZ.-	Gai horri dagokionez, zalantza bat baino gehiago daukat.
MIKEL.-	Hara, bestea. Esan, esan noiz huts egin dizut?

-nez (kausa) / -nez (modua)

Kontuz ibili egitura honekin. Ez nahastu kausazkoarekin.

<p>Hitzaldia berandu bukatu denez, ez deitzea erabaki dut.</p> <p style="text-align: right;">(kausa)</p>

<p>Hitzaldia, itxura denez, berandu bukatu da.</p> <p style="text-align: right;">(modua)</p>

nik dakidanez / nik dakidala

Ikusi dituzuen bi esapide horiek, oso antzekoak diren arren, ez dira guztiz baliokideak. Ikus dezagun.

<p>Nik dakidanez, Mikel ez da etorriko bilerara.</p> <p>Olatzek daukan informazioaren arabera, badirudi Mikel ez dela etorriko bilerara. Esaterako, Olatzek badaki Mikelek gaua Madrilen pasatu duela.</p>

<p>Nik dakidala, Mikel ez da etorriko bilerara.</p> <p>Loreak duen informazioaren arabera, ia segurua da Mikel ez dela etorriko bilerara. Izan ere, Loreak Mikelen gonbite-txartela mahai gainean ikusi du.</p>
--

-n antzera

Orain ikusiko dugun egitura aurrekoen antz-antzekoa dugu formari dagokionez. Esanahiaren aldetik, ordea, berdintasuna baino gehiago antzekotasuna adierazten du.

MIKEL. -	Mendiko etxea utzi genizuen antzera aurkitu genuen.
LOREA. -	Antzera diozu?
MIKEL. -	Bai, ongi entzun duzu.
LOREA. -	Bada, aldegin aurretik sartu ginenean aurkitu genuen bezala ipintzen ahalegindu ginen.
MIKEL. -	Sinesten dizut, Lorea, baina mantak eta izarak lekuz aldatuta aurkitu genituen. Horregatik diot utzi genizuen antzera aurkitu genuela.
LOREA. -	Hori al da arazo guztia?

Aditza ezabatuz forma laburtuak lortuko ditugu. Horretarako, aurreko izen-sintagmari *NOREN* kasu-marka erantsi behar zaio.

Maite ninduela esan zidanean, tximeleten antzera jarri nintzen.

Neska lagunak utzi ninduenean,
negarrez hasi nintzen ume txiki baten antzera.

Izenlagun gisa erabiltzen denean *-ko* atzizkia hartzen du.

Maitemintzen direnean, ume txikien antzekoak dira.

Gorputzez Karpinen antzekoa da.

Matxinsalto batzuk, hegan egiten dutenean,
tximeleten antzekoak dira.

GALIPOTARENA

- MIKEL.- Eta? Zer moduz?
- LOREA.- Beno ahal izan dugun **neurrian** lagundu diegu.
- MIKEL.- Galipot asko batu al duzue?
- LOREA.- Bost bat tona, gutxi gorabehera.
- MIKEL.- Bost tona? **Ño!** Jo eta ke aritu zarete beraz, ekin **ahalean**.
- LOREA.- Bai, jauna. Jo eta ke. Astoak bagina bezala. Jota nago!
- MIKEL.- Bada, ni txostena amaitu ezinik nabil.
- LOREA.- Mikel, ez esan ez duzula txostena amaitu.
- MIKEL.- Ekin **ahalean** lan egin dut baina... ezin izan dut bukatu. Zuen laguntza beharko dut.
- LOREA.- Ahal dudan **neurrian** lagunduko dizut, baina astelehenetik aurrera, izan beharko du. Astelehena arte ohean etzanda egotea erabaki baitut.
- MIKEL.- Ulertzen dut. Goazen etxera, ederto afalduta joango zara gaur ohera.
- LOREA.- Afaria prestatu al didazu, Mikel?
- MIKEL.- Bai, eta ez nolanahikoa! Hilak berpizteko modukoa!
- LOREA.- Benetan, Mikel. Zer esan ez dakidala geratu naiz. Mutu.

Beno ahal izan dugun **neurrian** lagundu diegu.

Bi egitura horiek maila edo neurria adierazten duten moduzko perpausak osatzeko erabiltzen dira. *-n* atzizkia aditz lagunari eranstean zaio eta *neurrian* nahiz *heinean* adizlagunak jarraian jartzen dira.

Bost tona galipot? **Ño!** Jo eta ke aritu zarete beraz, ekin **ahalean**.

Ahalean aldaera intentsitatea edo ugaritasuna adierazteko erabiltzen da.

Bai, jauna. Jo eta ke. Astoak bagina bezala. Jota gaude.

Baldintzazko perpausa bati, *bezala edo legez* modu-aditzondoa erantsiz ere, osa daiteke moduzko perpausa bat.

Ulertzen dut. Goazen etxera, ederto afalduta joango zara gaur ohera.

Bai, entzun dut. Zer esan ez dakidala geratu naiz. Mutu.

Bada, ni txostena amaitu ezinik nabil.

Hainbatetan, modua adierazteko erdarazko gerundioaren antzeko esapideak erabili ohi dira.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatica Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari:
Gramática Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com